

**EUSKARA PLANAREN
INSTITUZIONALIZATZEKO PROIEKTUA
FAGOR EDERLAN KOOP. ELKARTEAN.**

**Gurutze Mendizabal Mujika
Urretxun, 2003ko urriaren 31an.**

0. SARRERA.....	3
1. FAGOR EDERLAN KOOP. ELKARTEKO EUSKARA PLANA.....	4
2. ARAZOAREN DESKRIBAPENA.....	8
3. INSTITUZIONALIZAZIOA.....	10
4. INSTITUZIONALIZATZEAREN MEHATSUAK.....	15
5. INSTITUZIONALIZAZIO PROIEKTUA.....	16
6. ONDORIOAK.....	21
ERANSKINA	

0. SARRERA

Lan honetan kooperatiba baten Euskara Planak hasieratik aurrean izan duen erronka bati buruz arituko naiz: Euskara Plana enpresan txertatzea.

Gaia ez da berria, baina egungo errealitatean garrantzia irabazi du. Izan ere, enpresetan 90. hamarkada bukaeran hasi ziren egun martxan dauden Euskara Plan asko. Kooperatiben kasuan gehienetan planak kolektiboak eskatuta Kontseilu Errektorearen babesarekin abiatu ziren. Egun, planak garatu egin dira eta kolektiboaren borondateaz gain, exekutiboaren indarraren beharra dute eta honi erantzun desberdinak eman zaizkio kooperatiba bakoitzean.

Gaiak hausnarketa merezi du eta horretan ari gara EMUN Koop. Elkartean. Ondorengo lana egiteko ezinbestekoa izan da EMUNeko lankideen laguntza, beraien ikuspegiak eta balorazioak.

Lan hau nire zerbitzua ematen dudan kooperatiban kokatu dut. Bertako errealitatean oinarrituta dago, eta errealitate horretan eragitea du xedea.


Lehenengo eta behin organizazioa eta bertako Euskara Plana aurkeztuko ditut. Hortik abiatuta egun Euskara Plan horrek dituen arazoak deskribatuko ditut eta horiei irtenbidea emateko bide bat proposatuko dut. Irtenbideetaz aritzerakoan instituzionalizazioa aipatuko dut, eta terminoaz beraz arituko naiz. Azkenik, proposatutakoa praktikara eramateko proiektua aurkeztuko dut.

1. FAGOR EDERLAN KOOP. ELKARTEKO EUSKARA PLANA.

1.1. Fagor Ederlan Koop. E.

Lan hau nik zerbitzua ematen dudan kooperatiban kokatuko dut Fagor Ederlan Koop. Elkartean hain zuzen. Fagor taldeko kooperatiba honek 1300 langile ditu 8 plantetan banatuta. Plantak Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasaten daude. Autoentzako osagaiak egiten ditu; motor, transmisio, balazta eta esekidura osagaiak hain zuzen. Enpresaren iharduna negozioka banatuta dago.

Instituzionalizazioaz aritzerakoan aipatzekoa da enpresa honen kooperatiba izaera. Izan ere, kooperatibetan organo gorena (erabaki ahalmen gorena duena) urtean behin egiten den Batzar Orokorra da eta batzar honek urtean zehar izango duen ordezkoko organoa Kontseilu Errektorea da. Organo hau bazkide guztien artean aukeratutako 12 kidek osatzen dute, eta beraietako bat kooperatibako Lehendakaria da. Organo honen aginduetara Zuzendaritza dago, Zuzendaritzaren eginbearra exekutatzeko da. Gerenteak eta bere laguntzaileak (departamentu eta negozioko arduradunek) osatzen dute organo hau. Kontseilu Soziala da kooperatibako hirugarren organoa, honen eginbearra langileen (bazkide eta ez bazkideen) eta beste bi organoen arteko komunikazioa bermatzea da.



Fagor Ederlan Koop. Elkarreak automozio merkatuan lehiatzen du, merkatu hau oso lehiakorra da. Fagor Ederlanek bezero gutxi eta oso indartsuak ditu, guztiak atzerrikoak: General Motors, VW, Rober, BMW, Opel, Volvo, Ford, Land Rover, Jaguar, Renault, Nissan, Delphi, Saab, Honda, Citroen, Peugeot, Mercedes, Continental Teves, Suzuki, Audi eta Seat. Hori dela eta, aspalditik ari dira kalitatean lanean:

- ISO/TS 16949 (Automoziorako kalitate sistema): bezero guztien artean adostutako kalitate sistema bateratuan lan egiten dute.
- ISO 14001; 1998. urtean lortu zuten Fagor Ederlan osorako; horretaz gain, Ingurumen mailan, Motorreko negozioan EMAS agiria lortu dute, eta beste hiru negozioetan inplantatzeko bidean daude.
- EFQM: 1996an hasi ziren ebaluazio sistema hau erabiltzen, eta gaur egun Gestio Plana eta Plan Estrategikoa gestionatzeko tresna bezala erabiltzen da.
- Gestioa kudeatzeko Intraneta sortu dute; bertan SICinet (kalitate sistema), SIRinet (bilerak kudeatzeko sistema), PACinet (Proiektu bat aurrera ateratzeko jarraitu beharreko prozesuen kudeaketa), GOBinet (helburuen jarraipena), NCinet (departamentuen arteko desadostasunak edo arazoak gestionatzeko sistema) eta abar daude.

1.2. Fagor Ederlango Euskara Plana:

70. Hamarkadatik enpresan euskararen aldeko mugimendua egon da. Hamarkada hartan eskolak martxan jarri ziren, baina krisi ekonomikoa etortzearekin batera bertan behera gelditu ziren. 98an egungo Euskararen Erabilera Planaren inplementazioa martxan jarri zen.

Plangintzaren helburua hasiera hasieratik “euskaraz lan egin nahi duenari hori egiteko aukera bermatzea” izan da. Euskara planaren helburu nagusia barne harremanak euskaratzea da. Horrez gain, hornitzaile eta administrazioarekin harremanak ere lantzen dira. Bezeroekin ez, guztiak kanpokoak dira eta.

Plangintza horizontalean hazten joan da: 1998an Bulego Orokorretan inplantatu zen eta handik aurrera, eskaera sozialaren ondorioz, negozio guztietara banan banan zabaltzen joan da. Zabaltze hau 2003an burutu da. Plana negozio guztietara zabaltzeko eskaria partehatzea bideratzeko sortutako “Giza Interbentzio Plana” izena zuen proiektu batetatik etorri zen.

Euskara Planaren motorra Erabilera Taldeak izan dira. Egun negozio guztietan martxan daude. Erabilera Taldeen helburua euskaldunen komunitatea trinkotzea da. Talde hauetan partaideen esku dauden erabilera helburuak sortu eta jarraipena egiten zaie, horretarako partaideek behar duten formazioa (ez dira alfabetatze klaseak) lortzen dute (terminologia, ereduak...), eta motibazio ekintza zehatzak egiten dira. Horrez gain, Erabilera Taldeetako eskaerak jaso eta Euskara Batzordearen bidez bideratzen dira.

Bulego Orokorretan, departamentu batetan ezik, Erabilera Taldeak 2001ean desagertu egin ziren eta departamentu buruen esku gelditu ziren erabilera helburuak.

Era berean urte horretan Fagor Ederlango Hizkuntza Irizpideak onartu zituen zuzendaritzak. Hizkuntza Irizpideen bidez, ordurarte Euskara Planean lortutako erabilera helburuak finkatu nahi ziren.

Dokumentu honetan komunikazio ekintza batzuetan (ahozkoan, irudian eta idatzizkoan) egin beharreko hizkuntza erabilera arautzen da. Dokumentu honen arabera adibidez, ohar tauletan jarri beharreko jakinarazpenak elebrietan egon behar dira lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz, euskarazko testua beltzez, eta gaztelaniazkoa kurtsibaz...etab.

2001 urtean Fagor Ederlango gerenteak Euskararen adierazlea eskatu zuen. Ordudanik, urtero Gestio Plana egiterakoan euskararen erabilera adierazlea erabiltzen da.

2002 urtean negozioetan Erabilera Taldeekin batera dinamika berri bati ekin genion: Negozioetako departamentu buru bakoitzak bere departamentuarentzat helburuak adostu ostean helburu horiek negozioko Gestio Planean sartzen dira eta hilero departamentu buru bakoitzak bere helburen betetze mailaren deskargua egiten du negozioko zuzendaritzan. Honetarako helburuen neurketa kuantitatibo sistema beharrezkoa izan da.

Euskara Planaren giza baliabideei dagokionez, kooperatibako negozio bakoitzak eta Bulego Orokorrek koordinatzaile bana dute. Bulego Orokorretako koordinatzailean bere lanaz gain koordinatzaile orokorraren lanak egiteko dedikazioa du. Negozioetako koordinatzaileek ez dute lan horretarako aparteko dedikaziorik.

Koordinatzaile guztiak bi hilean behin Euskara Batzordean biltzen dira. Batzorde hau koordinatzaile eta hiru teknikariek gain Euskara Batzordeko lehendakariak, eta Kontseilu Sozialeko ordezkariak, Kontseilu Errektoreko ordezkariak eta bestelako kideek osatzen dute. Negozio bakoitzeko bi kide dira.

Euskara Batzordean ez dago kooperatibako zuzendaritzako kiderik. Organoetako ordezkariak Euskara Batzordeko erabaki eta organoen arteko koherentzia bermatzen dute, eta organora eramateko gairen bat izanez gero, beraiek izaten dira organoan aurkezpena egiten dutenak.

Batzordearen eginkizun nagusia planari osotasuna ematea da enpresa guztiari dagozkion gaiak eta gai partikularragoak landu eta aurrera eramatea da.

Fagor Ederlango Euskara Batzordeak Fagor Taldeko Euskara Batzordean ordezkari bat du. Aipagarria da Fagor Taldeko Euskara Batzordearen ekimenez talde osoarentzat sortutako "Hizkuntza Egokitzapenerako araua". Dokumentu honek zeharkako langileen hautapenean postu bakoitza bete behar duen pertsonaren hizkuntza ezagutza arautzen du. Fagor Taldeak sortutako hau oinarritzko araua da, kooperatiba bakoitzak garatu beharrezkoa. Fagor Ederlanen oinarritzko araua garatu eta hautapenean aplikatzeaz gain, formazioan aplikatu da.

Euskara Planaren baliabideei dagokionez, orokorrean finantzaketa HKSF fondotik egiten da, ez ustiapen fondotik. Fondo honetatik finantziatzen diren proiektuek ez dute Ustiapen Fondokoek adina jarraipenik izaten. Ustiapen kontua zuzendaritzak kudeatzen du, HKSF fondoa berriz, Kontseilu Errektoreak. Bada Ustiapen Kontutik finantziatzen den Euskara Planeko gai bat: 2003an Fagor Taldeko Zeharkakoentzako Hizkuntza Egokitzaperako araua Fagor Ederlanen aplikatzen hasi zen. Arau honek postu bakoitzak duen hizkuntza eskakizuna zehazten du. Ondorioz, langileak duen euskararen ezagutza berak betetzen duen postuak duen eskakizunaren azpitik badago, langile horren formazioaren kostuaren zati bat enpresak bere gain hartzen du eta Ustiapen Kontutik ordaintzen da.

2003ko Batzar Orokorrean Kontseilu Errektoreak eta Kontseilu Sozialak Euskara Planaren aldeko diktamina egin zuten, beraz, kolektiboaren eskaria du.

2. ARAZOAREN DESKRIBAPENA.

Euskara Plana Euskara Batzordearen esku dago, ez kooperatibako organoen esku. Helburuak lortzeko Euskara Batzordeak dagokion organoari (Kontseilu Errektoreari, Zuzendaritzari edo Kontseilu Sozialari) eskatu egiten dio, baina gaia ez da organo horiena. Hau da, kooperatiban Euskara Plana ez dago organigraman inon kokatuta.

Euskara Batzordeak lan hauek guztiak egiten ditu inork delegatu gabe (delegatzeko ere euskara ez baita inongo organoen ardura): Kolektiboaren eskariak hartu eta Kontseilu Errektoreari edo Kontseilu Sozialari helarazten dizkio, jarraipen orokorra egiten du, helburuak jarri eta exekutatzeko dituzte...

Euskara enpresa gaia bihurtzea beharrezkoa da: planean erabaki sendoak hartzerako orduan, exekutatzeko orduan, helburuei jarraipena egiterako orduan...etab.

- Euskara Plan osoaren jarraipena Euskara Batzordeak bakarrik egiten du. Euskara planaren jarraipena egiteko organoen partehartzea ez da nahikoa.
- Erabilera helburuen jarraipenik ez da egiten:
 - Lortutako erabilera helburuak atzera egin ez zezaten eta aldi berean zuzendaritzaren inplikazioa lortu asmoz, Euskara Batzordeak zuzendaritzari Hizkuntza Irizpide batzuk aurkeztu zizkion (*ikus 1. eranskina*). Zuzendaritzak berak onartu zituen Hizkuntza Irizpideen jarraipenik ez du egin. Dokumentuak berak dio, irizpideen jarraipenaren ardura Giza Baliabideen departamentuarena dela baina departamentu honek ez die erabilera helburuekin zerikusia duten gaiei heldu. Bere esku dauden helburuei ordea bai: Giza Baliabideetako departamentuak euskararen ezagutzaren inguruan bai formazioan bai hautapenean erabaki ausartak hartu eta aurrera eraman ditu.
 - Giza Baliabideetako departamentuak euskararen ezagutza helburuak izan ditu Gestio Planean. Erabilera helbururik ez du izan eta ez du kooperatiba osoko erabilera helburuak lantzeko edo/eta jarraipena egiteko baliabiderik.
 - Neurri handi batetan, erabilera helburuei ez die teknikaria ez den inork jarraipenik egiten eta teknikariak sarri ez du jarraipena egiteko behar den botere exekutiborik. Euskararen ardura norena den ez dago argi eta ondorioz, helburuen jarraipena norena den ere ez. Euskara gaia mundu guztiarena da (organo guztien babesa du) eta inorena da (plana exekutatzeko orduan organoetatik kanpo dago) enpresan.

Jarraipen ezari aurre egiteko ondorengoa erabaki zen: Zuzendaritzaren Gestio Plana negozio bakoitzean garatu egiten da, eta hor negozio bakoitzeko erabilera helburu zehatzak, gehienetan koordinatzaileen bidez, gestio planean sartzen dira. Negozioko erabilera helburuen deskargua organigraman behetik gora egiten da (departamentu buruek negozioko gerenteari eta honek gerente orokorrari) baina ez da neurri zuzentzailerik hartzen, ez dago goitik beherako jarraipenik.

- Euskara plana negozioka zatituta dago eta osotasun beharra du. Plan Estrategikoari jarraituz, Euskara Plana Bulego Orokorretan hasi eta negozioetara banan-banan zabaldu izanak negozio mailako euskara planak izatea eragin du. Ederlan mailan ez dago argi (Euskara Batzordeak argi izan arren) ez noraino iritsi nahi dugun, ez zeintzuk diren atzera buelta gabeko minimoak (ezagutza eta erabileran)...
- Euskara Batzordeak nahiz eta organoen babesak izan, ezin du kooperatiba mailako erabakirik hartu. Ez da organo baten batzorde bat, organoetatik kanpo dago.

Enpresa aurreratuetan enpresa malgua lortu eta horrela merkatuan etengabe ondo kokatuta egoteko partehartzea eta langileen inplikazioa lortzea ezinbestekotzat jotzen da. Fagor Ederlango Euskara Planen kasuan partehartzea, inplikazioa eta borondatezkoa den plana badugu, orain organoen lan eginkizunetan euskara sartu behar dugu.

3. INSTITUZIONALIZAZIOA

3.1. ZER DA?

Euskara Plana kooperatibaren kideen borondatean oinarrituta egoteaz gain **kooperatibaren proiektu** izatea. Euskara Plana instituzionalizatuta dagoen erakunde batetan bertako organoek Euskara Plana bere funtzioen artean dute.

3.2. ZERGATIK INSTITUZIONALIZATU BEHAR DU EUSKARA PLANAK?

Euskara Planaren hainbat helburu eta ezagutza, erabilera eta motibazio lorpen ezin dira denboran mantendu enpresako organoen eginbeharren artean sartu gabe.

- Instituzionalizazioarekin arduren esku aldaketa sustatu nahi da. Helburu hau ez dugu epe motzean lortuko, **epe ertain edo luzerako plangintzaz** edo plangintza estrategikoaz hitz egin beharko dugu.
- Instituzionalizazioa Euskara Planaren bilakaeraren **une eta modu desberdinetan** abiatu daiteke. Enpresako kultura eta jarreraren arabera
- Kooperatiba batetan instituzionalizazio prozesuaren arrakastarako beharrezkoa da **masa sozialaren aldeko jarrera**.
- Instituzionalizazioak berak ez du **Euskara Planaren arrakasta** ziurtatuko, baina Euskara Plana kudeatzeko beharrezkoa da. Instituzionalizazioaren bidez, lortutako erabilera finkatu eta atzera pausuak ekidingo dira eta instituzionalizazioak erabilera helburu batzuetan eragin handia izango du (esate baterako, idatzi laburretan) beste batzutan aldiz, (ahozko informalean esate baterako) ez.

3.3. NON HASI ETA BUKATZEN DA EUSKARA PLANAREN INSTITUZIONALIZAZIOA?

Aurrez aipatutako moduan, instituzionalizazioa Euskara Planaren une desberdinetan gauzatzen hasi daiteke. Instituzionalizazioa enpresa bakoitzaren kultura eta batez ere, organo gorenetakoa kideen jarreraren arabera modu batera edo bestera burutuko da. Sarritan zaila egiten zaigu enpresa batetan Euskara Plana zenbateraino dagoen instituzionalizatuta azaltzea. Izan ere, momentuan instituzionalizatzeko mailez hitz egin

dezakegu, instituzionalizazioa continuum bat izango balitz moduan. Baina maila horiek definitu gabe daude. Mailaketa egiteko mota honetako galderen erantzunetan oinarritu beharko ginatke:

- Erakundearen exekutiboak euskararen erabilera, ezagutza, eta motibazioan eragina duten zein erabaki hartu du? Erabaki horiei jarraipenik egiten al dio?
- Erakundeak hizkuntza aldaketan noraino iritsi nahi duen definituta al dauka? (hizkuntza politika baten bidez definitu daiteke, edo beste modu batetara).
- Euskara Planari dagokionez, erakundearen organoen artean ardurak banatuta al daude? Nor da Euskara Planaren kudeaketaren arduraduna?
- Euskara Planari jarraipenik egiten al zaio? Nork egiten du jarraipena? Zein motatakoa da jarraipena? Ekintza zuzentzaileak nork agintzen ditu?

3.4. FAGOR EDERLAN KOOP. ELKARTEAREN KASUAN ZER ESAN NAHI DU INSTITUZIONALIZAZIOAK?

Organoek Euskara Planean duten inplikazioa handitzea. Organoek Euskara Planean ardurak definitu eta hartu egin behar dituzte. Ardura hauek organo bakoitzak berezkoak dituen ardurekin koherenteak izan behar dira.

- Kontseilu Errektoreak gaiaren jarraipena egitea.
- Kontseilu Sozialak Euskara Planaren inguruko komunikazioa bermatzea eta Euskara Planaren inguruan dagoen indar soziala organo honetatik bideratzea.
- Exekutiboak kudeatzen dituen gaien artean euskararen gaia sartzeari. Horretarako, exekutiboak Euskara Plana kudeatzeko sistema bat beharko du. Gestio sistemak batez ere, kalitatea, ingurumena eta segurtasunean erabiltzen dira. Hiru gai hauek, gurea bezala, ez daude produktuarekin erabat lotuta erostaketak, finantzak edo giza baliabideak dauden moduan. Gai periferikoak direla esango nuke (produktzioa da gai zentrala) eta urteetako lanaren ondoren neurri batetan enpresaren gestioan integratzea lortu dute, eta egun integrazio eredu hobetzen ari dira.

Euskara sustatzea gai horiekin konparatzen badugu badira hainbat desberdintasun:

- Kalitatea, ingurumena eta segurtasuna gaiak arau batzuk dituzte: segurtasun eta ingurumenaren kasuan legedia bat, ISO ziurtagiria lortzeko arau batzuk... Euskararen kasuan ez dago jarraitu beharreko enpresaz kanpoko arau edo irizpiderik. Gestio sistemak sortzen enpresa bakoitzean dugun esperientziatik ikasten ari gara.
- Euskara merkatuan lehiatzeko ez da beharrezkoa, bezeroekin zerikusia badu normalean euskararentzat negatiboa da.
- Gai horien arduraduna zuzendaritza da, Euskara Planarena ez.
- Beste kanpoko interes taldeekin kooperatibak harreman gutxi du: Ingurumen edo segurtasunari buruzko iritzi artikulua noizean behin egunkarian agertzea ohikoa da (normalean enpresan gertatutako zerbait salatzeke) baina gure kasuan ez da horrelakorik gertatzen. Administrazioarekin enpresak duen harreman bakarra dirulaguntzekin lotuta dago eta dirulaguntzak lortzeko administrazioaren eskakizunak ez dira sistema bat sortzeko oinarria.
- Talde interesatuak batez ere enpresa barruan daude. Barne eskakizun honek ingurumen, kalitate eta segurtasunarekin konparatuta abantaila suposatzen digu.
- Kalitatea, ingurumena eta segurtasuna enpresa batetan periferikoak badira, euskara periferikoagoa da. Enpresan txertatzeko guk beraiek egin duten bidea egin nahi dugu eta, neurri horretan, eredugarriak izan daitezke.

Sistema sortzeak klabeak diren aktibitateak formalizatu (antolatu, arduradunak izendatu...) eta behar den moduan dokumentatzea esan nahi du. Sistematizatzea ez da gai bat zurrun bihurtzea, sistema etengabeko hobekuntzarentzat, aldaketarentzat, oinarria eta tresna izan behar da.

Sistemak enpresan gaia kudeatzeko bitarteko izateaz gain, kanpoko interesatuei egindako lana erakusteko ere balio du. Kanpoko interesatuak administrazioa, bezeroak, mugimendu sozialak...etab. izan daitezke.

Sistema hau kooperatiba osoarentzat izango da, eta honekin orain arteko planak plan bakar bihurtzea lortuko dugu.

- Aurrekoak Euskara Batzordearen esku dagoen Euskara Planaren kontrola beste baten esku uztea esan nahi du. Eta honek Euskara Batzordearen


funtzioen inguruan hausnarketa egitea eskatzen du. Batzordeak bete izan dituen funtzioak organoek hartzen dituzten neurrian, batzorde honen funtzioak birplanteatu beharko dira beti ere estrategia baten barruan.

EGUNGO EGOERA:

Euskara Plana Euskara Batzordearen esku dago. Euskara Batzordean ez dago zuzendaritzako kiderik eta ez du zuzendaritzarekin harreman zuzenik. Kontseilu Errektorearen eta Kontseilu Sozialaren ordezkariak daude.

NAHI DUGUN EGOERA:

Euskara Plana Zuzendaritzaren esku uztea, Kontseilu Errektorearen eta Kontseilu Sozialaren jarraipenarekin. Modu honetan Euskara Planak beste edozein gairen tratamendua izango luke.



Bestalde, Euskara Planaren oinarriak finkatu behar dira: Noraino iritsi nahi dugu? Horretarako zein bitarteko erabiliko ditugu? Ze indar dugu? Non dugu indarra?


3.5. ZERGATIK ETA ZERTARAKO EKIN INSTITUZIONALIZAZIO PROZESU BATI FAGOR EDERLANEN?

- 1998an Euskara Planaren inplementazioa hasi zenetik lehenengo Kooperatibako Plan Estrategikoan Euskara Planaren estrategia Euskara Plana enpresa guztira zabaltzea izan zen. 2005ean plana hasi zenetik bigarren Plan Estrategikoa hasiko da. Helburu estrategikoak pentsatzen hasteko unea da.
- 2003ko Batzar Orokorrean Kontseilu Errektoreak Euskara Planaren aldeko dikatamina idatziz egin zuen.

“Centrándonos en temas sociales, hacemos un llamamiento a apoyar el Plan de Euskaldunización que se desarrolla actualmente en el Negocio de Freno, así como el iniciado recientemente en el Negocio de Suspensión.”

“Y para terminar desear se cumplan los objetivos de los Planes de Euskaldunización de nuestros Negocios.”

- 2003ko Batzar Orokorrean zuzendaritzak planaren aldeko jarrera ahoz adierazi zuen.
- Fagor Ederlanen kasuan, Instituzionalizazioa inplementazioarekin batera, etengabeko hobekuntzaren ondorioz sortutako programa da. Euskara Batzordeak argi ikusten du instituzionalizazio bidean lan egin behar duela.



- Euskara Plana aldaketen aurrean **kooperatiban errotu** egin behar da. Alde batetik, Plana etengabe garatzen eta aldatzen, hobetzen, egongo da eta oinarri sendoa izatea behar du, oinarri soziala izateaz gain, kooperatiban oinarritu behar da. Bestetik, kooperatibek egitura eta inguru oso aldakorra dutenez etengabe aldatzen ari dira. Gure proiektua epe luzerakoa da, Euskara Planak merkatuaren eta euskalgintzaren gorabeherak biziko ditu eta ezin dugu horien menpe utzi.
- Plana ezin da etengabe hasierako **sustatzaileen esku** egon. Euskara Batzordearen helburuetako bat Euskara Plana errotzea da, ez dadila pertsona batzuen esku egon, organoen esku baizik. Sustatzaileek beraien proiektua kooperatibak berak aintzakotzat hartzen duela ikusi behar dute.

4. INSTITUZIONALIZATZEAREN MEHATSUAK

Instituzionalizazioak Euskara Plana kooperatibako organoen esku uztea esan nahi du. Beraz, plana exekutatzea exekutiboaren eginkizuna izango da. Organo honek erabaki beharko du gaia zeinen esku utzi, zer garrantzia emango dion, zer landuko duen, nork... Honek funtziona dezan hauek dira beharrezko baldintzak:

- Beste organoek Euskara Planari tira egiteko indarra izatea eta bakoitzak berezkoak dituen funtzioak betetzea. Euskara Planari tira egingo diotenak zeintzuk izango diren argi izan behar dugu.
- Instituzionalizazioaren aurrean euskalzaleari burura etortzen zaion lehenengo galdera hau da: Nahiz eta exekutiboan goitik beherako eskakizuna egon, Euskara Planean inplikazio pertsonalik ez dutenek lan egin al dezakete? Izan al daiteke euskara beste gai baten modukoa? Baiezko erantzuna ematea askotan zaila egiten zaigu. Baina froga egiten hasi egin beharko dugu, eta nahiz eta euskara kudeatzeko sistema sortzea exekutiboaren eginbearra den, lan horretan lagundu eta eragin dezakegu.
- Euskaltzale guztiak Euskara Planean integratu behar ditugu. Euskara Planak oinarri soziala du, borondatez, inplikazio pertsonal handiarekin jende askok Euskara Planean lan handia egin du. Pertsona guzti horiek egitura berrian beraien lekua izan behar dute. Instituzionalizazioa gehitzea izan behar da, ez kentzea. Integrazio hori inor mindu gabe lortu behar dugu eta gainera egitura berriak efikaza izan behar du.

5. INSTITUZIONALIZAZIO PROIEKTUA.

5.1. HELBURUA

Euskara Planaren inguruan hausnartu, oinarriak definitu eta estrategia bateratu batetara heltzea. Aholkulariaren lana bideratze lana izango da. Aholkulariok ez dugu Euskara Planaren geroa diseinatuko.

5.2. ARDURADUNA: ORGANOAK

Beharrezkoa da organoek proiektua hasi aurretik euren egitea eta beraien baliabideak proiektuaren esku jartzea, hau da, enpresa proiektu egitea. Hori Euskara Batzordearen lana izango da. Lan honetarako organoetan proiektuaren lidergoa izan dezaketenak topatuko ditugu, organoetako goi karguen babes (lehendakariarena, gerentearena eta lehendakariordearena) oso garrantzitsua da, eta horiekin aparteko informazio/motibazio lana egin beharko da.

5.3. METODOLOGIA:

5.3.1. Euskara Batzordea sustatzaile:

Euskara Batzordeak organoak eragile bihurtu behar ditu: (enpresa proiektua balitz goitik beherako enkargua etorriko litzaioke). Iñaki Markok dioena kontuan hartuta

“...plangintzaren abiapuntuan eragiletza bat egongo da (eragiletza hori ez bakarrik hasierako sustapenean, gerora ere, plangintza prozesu osoan zehar ere, beharko da). Horrek antolakuntza-metodologikoarekin zer ikusia du. Gainera, plangintzaren ekintzarekin afektatuak izango direnak jasole edo eragile ere izango ote diren erabaki beharko da. “ (Iñaki Marko HIZNET 2002-2003)

Euskara Batzordeak sortu zenetik zentzu honetan hainbat ahalegin egin ditu baina ez da nahi zen moduko emaitzarik lortu. Euskara Batzordearen proposamenak organoek onartu egin dituzte baina ez die gaiei batzordeak nahi bezala heldu, hau da, jasole hutsak izan dira eta oraingo honetan eragile bihurtu nahi ditugu.

5.3.2. Metodologia partehartzailea.

Helburua lortzeko, ahal den kooperatibako kide gehienek ikuspegiak behar ditugu eta ikuspegi hauek guztiak elkar gurutzatuz eskema bat osatzea. Horretarako metodologia partehartzailea izan behar da. Kopuruari dagokionez, partehartzaileen kopurua mugatu beharra daukagu, horregatik ondorengoak hautatu ditugu:

- Euskara Batzordeko kideak:
Talde bakoitzaren ardura Euskara Batzordeko kide batek izango du. Taldearen bilera deia egin, bilerak gidatu eta talde bakoitzak lortutako ondorioak Euskara Batzordean aurkeztuko ditu.
- Organoetako ordezkariak:
Organoetako kideek prozesuan parte hartuko dute ordezkari gisa, hau da, organoaren barruan aldaketak egiterakoan beraiek izan behar dira aldaketa horien sustatzaileak.
- Gaian “adituak” dirak:
Gai adituak direnen partehartzea beharrezkoa da beraien ezagutza behar baitugu. Adibidez, hizkuntza politika landu behar duen taldeko kide enpresaren gestio ereduaren agertzen diren politikak diseinatu zituen pertsona egongo da, edo eskuliburuaren funtzioa eta diseinua aztertuko duen taldeko kide bat Erabateko Kalitateko teknikari bat izango da.
- Aholkularia:
Euskara teknikaria talde guztietan egongo da, bere ardura izango da talde bakoitzarentzat alde aurretik beharrezko materiala bidaltzea, eta bileran zehar, behar izanez gero, beste taldeen berri ematea taldeen arteko koherentzia bermatzeko. Aztertu beharrekoak oso zabala da eta eztabaida luzeak eragin ditzake, adostasun puntuak azpimarratzea eta horiekin aurrera egitea izango da, aholkulariaren lana. Coach edo entrenatzaile lanak egitea, alegia.

Euskara planean parte hartzen dutenak informatuta mantentzea eta aholku eta gomendioak eskatzea horretarako inplementaziorako dauzkagun tresnen bidez. Proiektua bukatutakoan beronei buruz enpresa guztian informatuko da.

Helburua hausnarketa eta elkarriketa bidez enpresan dagoen ezagutza eta eginkizunak euskararen gaiari aplikatzea da.

5.3.3. Talde lana:

Aholkulariek proposatutako gaizerrendan oinarrituta, Euskara Batzordeak gai bakoitza lantzeko taldeak osatuko ditu. Talde bakoitza Euskara Batzordeko kide batek, gai adituak diren kooperatibako kideek eta aholkulariak osatuko dute. Taldeetan landutakoa Euskara Batzordean aurkeztuko da.

5.3.4. Lanak produktu bat izatea:

Taldeetan egindako lana bildu eta eskuliburu itxura emango zaio. Eskuliburua izango da proiektuaren produktua.

5.4. EDUKIA

5.4.1. Proiektuaren oinarria

Landu beharreko edukiari dagokionez, lehenengo gaiari oinarria eman behar diogu. Horretarako, erreferentziazkoak diren arauak eta bete beharrezkoak diren legetara joko dugu. Gure kasuan Kooperatibaren estatutuetan xedapen gehigarrietan enpresaren hizkuntzari buruz dioena jasoko dugu:

“ Euskara, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala da kooperatiban. Erabiltzeko eta poliki-poliki ezartzeko beharrezko neurriak hartuko dira. “


5.4.2. Euskara planaren oinarrian dauden gai garrantzitsuenak.

Hau da landuko diren gaien zerrenda:

- a. Kooperatibako hizkuntza politika.
- b. Organo bakoitzaren eginkizunak.
- c. Euskara Planeko helburuak sortzeko eta jarraipena egiteko azpiprozesua.
- d. Euskara planaren baliabideak .
- e. Euskararen sistemaren mantenimendua.

a. Kooperatibako hizkuntza politika:

- Modu laburrean Euskara Planaren ildo nagusiak jasoko ditu. Hauek epe oso luzerako helburutzat hartu daitezke. Esate baterako euskara lan hizkuntza bihurtzea edo euskararen normalizazioa... Norantz eta noraino iritsi nahi dugun eta non aplikatuko den ildo nagusiak azalduko dituzten esaldien bidez adieraziko da.
- Kanpo eta barne betebeharrekin konpromisoa adieraziko du. Legediarekin, enpresaren estatutuekin, langileen borondatearekin...
- Hizkuntza politika gestiorako tresna izan behar da. Horretarako ildo nagusiek egungo egoeratik haratago dauden egoerak adierazi behar dituzte. Urteko helburuak edo helburu estrategikoak, sortzeko oinarria izan behar dira.



b. Organo bakoitzaren eginkizunak.

Kooperatibaren barne erreglamenduak organo bakoitzaren funtzioak zehazten ditu. Hori oinarri hartuta organo bakoitzak Euskara Planean dituen ardurak zehaztuko dira.

Organo nagusi horien arduraz gain, atal honetan Euskara Batzordearen funtzioak zehaztuko dira, baita bere osaketa, hautaketa eta berritzea ere.

c. Helburuak sortzeko eta beraien jarraipena egiteko azpiprozesuak.

Azpiprozesu hauek sortzerakoan behar diren adierazleak, tresnak...etab. zehaztuko dira.

d. Euskara Planaren baliabideak

Atal honetan hainbat gauza zehaztuko dira:

- Enpresak Euskara Planean erabiliko dituen errekurtsuak eta errekurtsu horiek banatzeko irizpideak egongo dira hemen. Atal honetan egongo dira Fagor Taldeak gai honi buruz sortutako araudia, euskara eskolei buruzkoa, etab.
- Langilean bere eskura dituen bitartekoak. Atal honetan langileek eskura dituzten hiztegi, zuzentzaile ortografiko...eta horrelakoak non dauden zehaztuko da. Baita koordinatzaile eta teknikarien helbide eta telefonoa ere.

e. Euskara Planaren eskuliburuaren definitzea: bere edukiak, erabilera eta garapena

Euskara planaren eskuliburuaren edukiak izandakoan bere funtzioa, forma, kokalekua, erabilera eta aldatzeko prozedura zehaztuko dira. Hau da, aurretik egindako lana jaso egingo da.

5.4.3. Euskara Planaren prozesua sortzea.

Lehenengo pausua Euskara Batzordean egungo prozesua sortu eta hobetzea izango da. Euskara Batzordea lan horretan ari den bitartean taldeentzat ere prozesua lan tresna bezala erabilgarria izan daiteke.

Taldeka landutako atalak Euskara Planaren prozesuan txertatuko ditugu. Prozesuaren bidez, Euskara Planeko motibazio, ezagutza eta erabilera helburuak sortzeko sistema eta helburu hauen jarraipen sistemaren oinarriak deskribatuko dira.

Azterketa lan honek egungo inplementazioan hobetu beharreko gaiak nabarmenduko ditu, eta horiei ere heldu beharko zaie.

Prozesua argi izandakoan, dokumentatu egingo da eta lan hori nola eta noraino egin behar den erabaki beharko da.

5.4.4. Euskara Planaren eskuliburua definitu eta bera erabili eta garatzeko metodologia sortu.

Eskuliburuan prozesu honen emaitzak jasoko dira. Euskara Planaren oinarrizko gaiak bertan jasoko dira eta enpresako edozein kiderentzat informazio iturri izango da.

Talde baten eginbeharra izango da eskuliburu itxura ematea. Eskuliburua izango da Euskara Batzordeak egindako lanaren produktua. Eskuliburua Euskara Batzordeak organo bakoitzari Euskara Planak dituen arazoak eta planteatzen dituen irtenbideen azaltzeko euskarria izango da.

Zuzendaritzak Euskara Planaren inguruan erabakia hartzen duenean, erabaki horren arabera eskuliburua egokitu egin beharko da eta orduan argitaratu egingo da.

4. ONDORIOAK

- Instituzionalizazioa Euskara Plana kooperatibaren kideen borondatean oinarrituta egoteaz gain kooperatibaren proiektu izatea da. Euskara Plana instituzionalizatuta dagoen erakunde batetan bertako organoek Euskara Plana bere funtzioen artean dute.
- Instituzionalizazio prozesua etengabeko hobekuntzaren eta ezagutzaren kudeaketaren ondorioa da.
- Erakunde batetako Euskara Plana instituzionalizatzeko ezinbestekoa da Euskara Planaren inguruan lanean ari direnen artean Euskara Planaren oinarri eta helburu estrategikoei buruzko ikuspegi bateratuak izatea.
- Fagor Ederlanen instituzionalizazioaren inguruan proiektu bat gauzatzeko momentu egokia da: organoen aldeko jarrera dugu, Plan Estrategiko berriaren atarian gaude eta Euskara Batzordean instituzionalizazio beharra nabarmendu da.
- Euskara Planak oinarri soziala du eta oinarri horri eutsi eta indartzea eta aldi berean euskara planaren ardura organoen eskuetan jartzea da erronka.

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK CRITERIOS LINGÜÍSTICOS

Mezu ofizial guztiak

- Negoio guztietan ele bietan ipiniko dira (tableroetan eta abar).

Deialdiak:

- Plangintzan sartuak dauden departamentuetan, nahi eta nahiez

Kanpo harremanak:

- Euskal Herrian: Plangintzetan daudenei (Fagor Taldea, MCC, Euskadiko Kutxa...) eta Euskal herriko beste edozein enpresari (Iberdrola, BBVA...) ele bietan; lehenengo harremanak finkatzerakoan ele bietan, eta komunikazio hizkuntza euskara izan dadila bultzatu.
- Estatuan: Gazteleraz, baina idazten den formatuan (eskutitza, faxa...) euskara ere agertu beharko da.

Todos los mensajes oficiales

- *Se colocarán en bilingüe en todos los Negocios (en los tableros, etc..)*

Convocatorias

- *Obligatoriamente en bilingüe en los departamentos que están inmersos en el Plan de Euskaldunización.*

Comunicación externa:

- *En el País Vasco: En bilingüe tanto con los que están inmersos en Planes de euskera (Grupo Fagor, MCC, Caja Laboral...) como con cualquier empresa vasca (Iberdrola, BBVA...). A la hora de establecer las primeras comunicaciones hacerlo en bilingüe, e impulsar que el euskera sea la lengua de comunicación.*
- *En el resto del Estado En castellano, pero deberá estar presente el euskera en los formatos (carta, fax...).*

EZARTZEKO MODUA

Helburu nagusia euskarari tratamendu berezia ematea da; beraz,

egoeraren arabera, modu batekoa edo bestekoa izango da:

MODO DE IMPLANTACIÓN

*El objetivo principal es dar
tratamiento particular al euskera; por
consiguiente, dependerá de cada
situación:*

Idatzi laburrak (esaldi laburrak):

DEIALDIAK

- Lehenengo euskaraz eta jarraian gazteleraz, euskara beltzez. (ikus 1. eranskina)

Beste motako idatzietan (esaldi luzeak): ESKUTITZAK, FAXAK, OHARRAK...

- Testu osoa lehenengo euskaraz eta gero gazteleraz, edo bi zuta-betan; gaztelera kurtsiban (ikus 2. eranskina)

Grafikoetan, gardenkietan...

- Izenburuak eta termino sinpleak (gaztelerarekin antza dutenak) euskaraz; izenburuaren azpian letra txikiagoarekin gazteleraz, nahi izanez gero. (Ikus 3. eranskina).
Gaztelerarekin antzik ez badu, ele bietan.

AURKEZPENAK /HITZALDIAK

Lehenengo eta oinarrizko irizpidea **informazioa ez errepikatzea** izango da. Hau da, hizkuntza batean ahoz ematen den informazioa beste hizkuntzan ez errepikatzea; idatzizkoan berdin, gardenki bat hizkuntza batean (edo bi hizkuntzak nahastuz) egiten bada, beste hizkuntzan berriro ez errepikatzea.

Textos breves (frases cortas):
CONVOCATORIAS

- *Primero en euskera y luego en castellano. El texto en euskera en negrita. (ver anexo 1)*

Textos en general (frases largas):
CARTAS, FAXES, AVISOS...

- *Todo el texto estará primero en euskera y luego en castellano, o a dos columnas; el texto en castellano, en cursiva.*

En los gráficos, transparencias...

- *Títulos y términos simples (los que tienen similitud con el castellano) en euskera, con opción de insertar debajo del título y con letra menor el mismo texto en castellano, (ver anexo 3). Si el texto no tiene ningún parecido con el castellano, en bilingüe.*

PRESENTACIONES

*La premisa básica sería **no repetir información**, es decir, si una información se da en un idioma, no se debería repetir en el otro (tanto a nivel hablado como escrito)*

HIZLARIA EUSKALDUNA BADA

Azken helburua bilera ele bietan izatea litzateke, hau da, erdia euskaraz eta beste erdia gazteleraz. Gutxinaka-gutxinaka, maila horretara iristeko pausoak eman beharko ditugu, idatzizkoan zein ahozkoan urtero aurrerapausoak emanaz, gizartean dagoen proportzioaren arabera.

HIZLARIA EUSKALDUNA EZ BADA

Hizlariak gazteleraz hitz egin behar badu, bere gardenkietan ahalik eta euskara gehien sartu beharko da, berdintasun mailara ahalik eta gehien gerturatzeko.

HEDAPENA

Informazio hau zabaltzeko Laguntzaileen bilerak eta Kontseilutxoak erabiliko dira; Laguntzaileen bileretan aurkezpena zuzendariak egingo du.

JARRAIPENA

Hizkuntza irizpideen ardura zuzendari guztiek izango dute; bereziki dokumentua, gardenkia..., sortzen duenarena edo bilera deitzen duenarena izango da ardura hori. Baina jarraipena egiteko departamentu arduraduna Giza Baliabideetako departamentua izango da.

SI EL ORADOR HABLA EUSKARA

Teniendo como objetivo que con el tiempo las reuniones sean bilingües (mitad euskara y mitad castellano), deberemos dar los pasos necesarios tanto a nivel escrito como oral para conseguir tal propósito, incrementando el uso del euskara paralelamente a su incremento en la sociedad.

SI EL ORADOR NO HABLA EUSKARA

Si el orador realiza todo el discurso en castellano por no hablar euskara, se hará especial hincapié en su parte escrita –transparencias...–, para poder llegar al porcentaje acordado.

PLAN DE COMUNICACIÓN

Se utilizarán las reuniones de Colaboradores y los Consejillos para dar a conocer esta información. En las reuniones de colaboradores la presentación lo hará el/la directora/a.

SEGUIMIENTO

Cada Director será el responsable de la correcta utilización de los criterios lingüísticos, y más concretamente la persona que cree el documento, la transparencia, o convoque la reunión. El departamento responsable de realizar el seguimiento general será el Departamento de Recursos Humanos.

- 1. ERANSKINA -

KONTSEILU ERREKTORERAKO BILERA DEIA
(CONVOCATORIA DEL CONSEJO RECTOR)

EGUNA: MAIATZAK 23, (asteartea)

ORDUA: Goizeko 9etan (9 de la mañana)

TOKIA: 1. GELA

BILERARA DEITUAK (CONVOCADOS)

LEHENDAKARIA: VALENTIN ALTUBE
LEHENDAKARIORDEA : JESUS JOSE BOLEAS
IDAZKARIA: MIKEL UGARTE
BOKALAK: JOSU URKIA
FIDEL AMOZARRAIN
IÑAKI ZUBIZARRETA

BOKALAK:

GREGORIO GRACIA
BEGOÑA UGALDE
JUAN IGNACIO INFANTE
JUAN CARLOS MENTXAKA
MIKEL URIBEETXEBARRIA
ISABEL ETXANIZ

GERENTEA: PEDRO MACON

GAI ZERRENDA / ORDEN DEL DIA

- 1.- **AURREKO AKTEN ONARTZEA (10 y 11/2000)**
LECTURA Y APROBACION DEL ACTA ANTERIOR (10 y 11/2000)
- 2.- **ZUZENDARITZAREN TXOSTENA (INFORME DE DIRECCION)**
2.1. Apirilako Informazio Ekonomikoa (Información Económica de Abril)
- 3.- **ENPRESA PARTAIDETUEN TXOSTENA**
INFORME DE NUESTRAS EMPRESAS PARTICIPADAS
- 4.- **BIGARREN GRADUKO ENTITATEEI BURUZKO GAIAK**
(ASUNTOS DE ENTIDADES DE 2º GRADO)
4.1. Fagorri buruzko gaiak (Información de Fagor)
- 5.- **BAZKIDEEI BURUZKO GAIAK**
ASUNTOS RELACIONADOS CON SOCIOS
- 6.- **BESTE GAI BATZUK (ASUNTOS VARIOS)**
6.1. Ordainsari Aldagarria (Tratamiento a la Retribución Variable)
- 7.- **ESKARIAK ETA GALDERAK (RUEGOS Y PREGUNTAS)**

Eskoriatza, 2000ko maiatzaren 19a

ESKORIATZA, 2000ko martxoaren 22a

Planta / Departamentua:
*Planta / Departamento:***Nori zuzendua:**
A la atención de:

**GAIA : 2000ko 1. SEI-
HILEKOAREN BALORAZIO
ESTRUKTURALA**

**ASUNTO : VALORACION
ESTRUCTURAL DEL 1er.
SEMESTRE DE 2000**

Garai honetan ohizkoa den bezala, 2000. urteko lehen sei hilekoari dagokion balorazio prozesua irekitzen da.

*Como es habitual por estas fechas, se abre nuevamente el **proceso valorativo** correspondiente al **1er. semestre de 2000.***

Sortu berriak diren edo oraingo erakundean **aldaketa nabarmenak** izateagatik FAGOR-Ederlaneko Balorazio Estrukturalaren Batzordera eramán nahi diren lanpostuak, **2000ko apirilaren 30a baino lehen** aurkeztu beharko dira, honen koordinazioa eramán ahal izateko FAGOR-Bulego Orokorretako Organizazio eta Balorazio Departamentuan aurkezteko.

*Aquellos puestos de **nueva creación**, así como **cambios sustanciales** registrados en los puestos de la actual organización y que quieran ser trasladados a la consideración del Comité de Valoración Estructural de FAGOR-Ederlan, **deberán notificarlo antes del día 30 de abril 2000**, para informar al Departamento de Organización y Valoración de FAGOR-Servicios Centrales, para su coordinación.*

Plantetan baloratu behar diren lanpostuen identifikazioa eta honek behartzen duen dokumentazioa (deskripzioak, organigramak, etab.) **Pertsonal Buruaren** laguntzarekin burutuko dira. Horrela, FAGOR-Ederlan mailan koordinatuta egongo da gaia Balorazio Batzordean aurkeztu aurretik.

*La identificación de los puestos a valorar en las Plantas, así como la necesaria documentación que ello conlleva (descripciones, organigramas, etc.), se hará contando con la colaboración del **Jefe de Personal** de cada Planta. Ello nos llevará a una coordinación general a nivel de FAGOR-Ederlan antes de presentarlo al Comité de Valoración.*

Edozein gauza behar izanez gero, jar zaitez kontaktuan nirekin. Besterik gabe, jaso ezazu agur bero bat.

Entretanto, quedo a su disposición para cuanto necesite. Sin más reciba un cordial saludo.

Juan Luis Castillo
Balorazioko Teknikaria
Técnico de Valoración

BAZKIDEENTZAKO OHARRA

Gaia: 1998ko EKITALDIKO KAPITAL SOZIALAREN DIRU EKARPENEN INTERESAK

1998ko Ekitaldiko Itxierari buruzko datu ekonomikoak ezagututa, eta betebeharrak legalei jarraiki, Kontseilu Orokorrak otsailaren 18an egindako bileran hauxe erabaki zuten:

1998ko ekitaldiko oinarrizko interes tipoa %7,50 ean kitatzea (urteko kopuru gordina)

Kooperatiben Barne Araudiaren 34-1. Artikuluaren arabera, bazkideei kopuru garbia ordainduko zaie, beti ere, urtarrilaren 19ko 1999/3 Dekretu Foralak agindu bezala, %18ko zerga kenduta.

Ordainketa 1999ko martxoaren 15ean egingo da, ordainketa bakarrean.

Pertsonal departamentua
Eskoriatzan, 1999ko martxoaren 3an

COMUNICADO A LOS SOCIOS

Asunto: INTERESES SOBRE APORTACIONES AL CAPITAL SOCIAL EJERCICIO 1998

Una vez conocidos los datos económicos definitivos del Cierre del Ejercicio 1998 y cumpliéndose los requisitos legales a estos efectos, el Consejo General, en sesión celebrada el día 18 de Febrero, adoptó el acuerdo de liquidar el interés base, del citado ejercicio 1998, al tipo del 7,50% anual bruto.

De acuerdo con lo regulado en el Artículo 34-Uno del Reglamento Interno Cooperativo, se procederá al pago a los socios por las cantidades netas resultantes, una vez deducido el correspondiente impuesto a cuenta que, a tenor de cuanto se indica en el Decreto Foral 3/1999, de 19 de Enero, queda establecido en el 18%. Dicho pago se realizará de una sola vez, con fecha 15 de Marzo de 1999.

*Departamento de Personal
Eskoriatza, 3 de Marzo de 1999*

KONTUZ, BIRUSA

“ Up-grade internet2 “ deituriko e-mail bat iristen bazaizu, ez ireki.

Ikono barregarri bat, perrin.exe, exekutatzen da . Birus honek disko gogorreko informazio guztia ezabatzen du eta gainera memoria itsasita gelditzen da , hau da informazioa berriz sartzen baduzu ere berriz ezabatuko da.

Birus hau oso arriskutsua da momentu honetan berarentzako txertorik ez dago eta. Beraz momentuz geldi ezina da.

“ California ibm” ere beste birus oso arriskutsua da Melissa ezaguna baino arriskutsuagoa.

Honek ere disko gogorra eta guztia jango du, beraz ez zabaldu.

CUIDADO,VIRUS

Si recibes un Mail titulado:"Up-grade internet2" !!NO LO ABRAS!!

Ya que contiene un ejecutable con un icono muy gracioso. El ejecutable se llama Perrin.Exe. Este virus borra toda informacion del disco duro y, de alguna manera, se refugia en la memoria del PC, por lo que, cada vez que cargues informacion en el disco duro, este lo borra de nuevo, dejándolo inservible. Se ha dicho que este virus es muy peligroso y que aun no existe antivirus para el. Por ahora es imparable.

"California. IBM" también que es muy poderoso, más que Melissa.

Se comerá toda la información en el disco duro y destruirá el Netscape Navigator y el Microsoft Internet Explorer. No abras nada con este título.